

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

**-Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Funtsezko baliabideak ezinbestekoak diren baliabideak dira, eta hauek gabe ezin izango genuke gure proiektua aurrera eraman. Baliabide hauen helburua da diru-sarrerak sortzea eta bezeroekiko harremana ongi mantentzea, irudia ere ona izan dezan.

Hiru motatako funtsezko baliabide daude:

**Baliabide fisikoei** dagokionez, lurra behar dugu Olatzen, hau da, gure proiektua montatzeko toki bat behar dugu. Bertan ondorengoak montatuko dugu: bulego bezala ere erabiliko dugun informazio puntua, “catering” bat bezeroentzat, parking bat bezeroak gerturatzeko, eta plataforma puzgarri batzuk, jolasterakoan ezkutatzeko. Baita ere, materiala gordetzeko lekua beharko dugu: ekipamendua eta jantziak.



Bestalde, **baliabide intelektualak** eta giza baliabideak gure punturik indartsuena dela uste dugu. Unax hiruretatik langileena da, eta bere

jakinduriak proiektuaren estabilitatea mantenduko luke. Dena antolatuko lukeena izango zen, eta bera izango zen buruzagia. Anderrek bere karisma erabiliko zuen, baita ere jendea tratatzeko daukan ezagutza, eta bezeroekiko harremanak berak eramango zuen. Azkenik, Mikelek, diru kontu guztiak eramango luke, oso ondo ematen baitzaio salerosketa eta diruarekin zerikusia duten kontuak.

Hau guztia esanda, **finantza baliabideak** izango ziren lortzeko zailenak. Bakoitzak bere aurrezki guztiak inbertituko lituzke proiektuan, baina diru gehiena banku bati eskatu beharko genioke, gero utzitako diru guztia interesekin itzuliz.